

Ordizian, 2016ko apirilaren 25ean, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen TOKIKO GOBERNU BATZORDEA, ohiko deialdian, honakoak bertaratu zirelarik:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: José Miguel Santamaría Ezeiza

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Angelica Moreno Heras
Igor Eguren Izagirre
Mila Sukia Galparsoro
Iñaki Dubreuil Churruca

EAJ/PNV
EH Bildu Ordizia
Ordizia Orain
PSE-EE (PSOE)

Gonbidatu gisa azaldu da baita ere IRABAZIren ordezkaria den Carlos Gonzalez Astiz jauna.

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.-2016ko apirilaren 11ko ohiko bilkurako akta onartzea.
- 2.- 6.000 €tik gorako fakturak.
- 3.- Txostenak eta hainbat eskari.
 - .- 6000 €tik beherako fakturak.
 - .- Oscar Romero diru-laguntzari dagokion gastuaren zuriketa.
 - .- Basque Culinary Centerrekin bilera.
 - .- Herriko festak.
 - .- San Bartolomeko aparkalekua.
 - .- Idazkari-AOT lanpostua betetzea.
 - .- Asteburuetan ikasleentzako liburutegia.

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 15:15

AMAIERA ORDUA: 16:20



Batzordeburu jaunak hasiera eman dio saioari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

1.- 2016ko apirilaren 11ko batzordeko akta onartzea.

Proposamena

“Ohiko deialdian egin zen 2016ko apirilaren 11ko aktaren zirriborroa onartzea”.

Dubreuil jaunak esan du 4. puntuan, “BBCrekin hitzarmena” puntuan, bere interbentzioan adierazi zuela, Oiangurenen burutu diren proiektuek ez dutela esperotako emaitza eman, eta ez zuela esan fruturik edo emaitzik ez zutela eman.

Zehaztutako zuzenketak egin ondoren, aho batez onartu da.



Jarraian Batzordeburuak eguneko aztergaietako hurrengo puntuaren berri eman du.

2.- 6000 €tik gorako fakturen zerrenda.

.- 22. zerrendaren berri eman da.

Kopurua guztira: 36.225,92

Aldeko irizpena jaso dute.



3.- Txostenak eta hainbat eskari.

.- 6000 €tik beherako fakturei buruzko informazioa.

21. zenbakidun zerrendaren berri eman da.

Jakinaren gainean.

.....

.- Oscar Romero diru-laguntzari dagokion gastuaren zuriketa.



Dubreuil jaunak esan du Oscar Romero GKEren proiektuari eman ziztaion diru-laguntza bati buruzkoa dela kontua.

HEGOAk proiektuaren aldeko informazioa eman zuen, baina zuriketa aurkeztean 2014 ekitaldiari ez zegozkion fakturak aurkeztu zituzten eta Araudiak ezartzen du proiektuak 2015eko ekitaldiaren barruan hasi behar direla.

Diru-laguntza eskatu zen xederako erabili zela jasotzen den arren, ez da betetzen ondorengo betekizun formalak: proiektua 2015 urtean hastea.

Gonzalez jaunak proposatu du, 2015. ekitaldiari dagozkion fakturak baldin badituzte, aurkezteko eskatzea.

Gobernu Batzordea ados azaldu da.

.....

-BCCenter.

Alkate jaunak jakinarazi die Gobernu Batzordeko kideei bilera egingo dela Basque Culinary Centerrekin indarrean dagoen hitzarmena berrartzeko.

Eguren jaunak azaldu du nola prestatu eta sinatu zen Hitzarmena eta adierazi du ez duela ulertzen orain BBCk duen jarrera.

Beraiekin bilera egingo da eta Alkateak informazioa ematen jarraituko du.

.....

.- Herriko festak.

Bilera egin da Udaleko teknikariek (Udaltzaingoa, Zerbitzuak, Jaiak, eta abar, Herriko jaiei buruzko hainbat alderdiren plangintza egiteko) baina ordezkari politikoekin ere bilera egitea komenigarria dela ikusten da.

Bilera hori maiatzaren 2an izango da 15:15ean.

Bilera horretan ondorengoek hartuko dute parte:

- .- Alkatea
- .- Kulturako Teknikaria
- .- Angelica Moreno
- .- Igor Eguren edo Belén Maiza
- .- Mila Sukia



- .- Carlos Gonzalez
- .- Garbiketa zerbitzuaren arduraduna
- .- Fetetako Arduraduna
- .- Udal Aparejadorea.
- .- Udaltzain burua
- .- Arantxa Fernández
- .- Gazte Bulegoko teknikaria
- .- Bittor Bolinaga

.....

- .- San Bartolomeko aparkalekua.

Alkate jaunak bertaratuei jakinarazi die San Bartolome aparkalekuko kontratua berritu dela.

Adierazi du kontratu honen bidez aparkalekua erabili ahal izango dela festetan barrakak eta feriak ipintzeko. Beste ikuskizun batzuei buruz hitz egin da. Herriko jaietatik kanpo ikuskizunak ipintzeko, ondorengo proposatu da: formula bat finkatzea non Udalari 300 €tik gorako diru-sarrerak ekartzen badizkio dena delako kontzeptuagatik, ez izatea beharrezkoa ekitaldirako baimena eskatzea.

.....

Alkate jaunak Idazkari-AOT lanpostua betetzeko prozesuari buruzko informazioa eman du.

.....

- .- Asteburuetan ikasleentzako liburutegia.

Mila Sukia andreak esan du gaia aztertzea komeni dela. Esan du ikasleek Itsasondo eta Beasaingo liburutegietara joan behar izaten dutela.

Dubreuil jaunak adierazi du gaur egun ikasle taldeek erabili ahal izateko espazioak behar direla.

Bilera egingo da Iñaki Hildalgorekin gaia aztertzeko.

.....

Jarraian Batzordeburuak eguneko aztergaietako hurrengo puntuaren berri eman du.



4.- Galde-eskeak.

Ez dago.



Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, alkate jaunak bilkura amaitutzat jo du. Behin-behineko idazkari naizen honek bilkuraren Akta jaso, eta horren egiaztapena egiten dut.

